

• Euskal jaiak Hernanin •

1909ko *billaldi* handia, euskal pizkundearen isla

Euskal jaiak eta lore-jokoak “euskal pizkundearen” espresio bistakoenak izan ziren, XX. mendean sartzearekin ugaltu ziren gainera. Aurten betetzen dira ehun urte Hernanikoak ospatu zirela eta Udalak atzera begiratua egingo du mendeurren horren karietara.

URKO APAOLAZA

“BAÑA EUSKAL-ERRIA oraindik ere bizi da?” galdetu zuen, eta berak erantzun zion galderari: “Bai, zauriturik badere, bizi da. Bere semeak gera. Onen bularretatik bere titi gozoa edoski degu. Bere itskuntz ederra erakutsi digute, bere legeak ezin da obeak dauzka bere biotzean guretzat gorderik”. 1909a zen, eta hitzok Jesus Maria Echeverria kanonigoak bota zituen, Hernaniko elizako meza nagusian. Ele burrunba sortu zuten herri hartako euskal jaiek, asmo politiko zehatza omen zutelako. Ziertoki, euskal jaiek gertara dramatiko batek markatuta egin zuten 1876tik aurrerako xenda: foruen galera.

1853ko Urruñako edizioarekin hasi eta hurrengo urteetako euskal jaietan Antoine Abbadie mezenasaren arrakasta izugarria izan zen. Gerora, Iparralde eta Hegoaldeko euskaltzaleen arteko harremana sendotu

zuen Abbadiek –bai eta Bonaparte printzeak ere– eta ondorioz 1879an euskal jaiak Hego Euskal Herrian egin ziren lehen aldiz, Elizondon zehazki.

Galdutako foruen defentsak, euskal pizkundera eta euskal jaien espiritua leku eta erakunde gehiagotara zabaltu zuen. Horrela, Donostiako Euskal Jostaldien Batzarrea euskal jai propioa antolatzen hasi zen Gipuzkoako uri zaharreen. Mende amaieran, Diputazioak ganadu feria gehitu zion Donostiako jai horri eta probintziako beste herrietara eraman zuen euskal jai: 1896an Arrasatera, ondoren Oiartzun, Zestoa, Zumarraga, Zumaia, Azpeitia, Oñati... eta hola iristen gara 1909ra, Hernaniko sarreran jarritako arku kolosalean leitu daitekeelarik: *Probinzia-ko Diputazio argiya. Ernani-ko erri ezagugarri ta leyal ontara Ongi betorkigu.*

Ezkerreko irudian:
jendetza Hernaniko
plazan dantzariak
ikusten, eta haien
atzean erakundeetako
ordezkarietako
plataforma.
Eskuinean: ganadu
feriko instalazioak.



Hernani lau mila buruko herri koxkorra zen. Tranbia berriaren ferrak kapitaleko hai-zea ekartzen hasiak ziren jadanik eta burgesen txaletak edo dantzaldi eta kafeak ez ziren falta. Baina berdin bizi ziren hala eskua baba betetako langile industrialak, nola baserriko seme txit prestuak. Porrusalda ederra zen Hernani 1909an.

Asmo politikoa, koanto

Euskal jaia irailaren 17tik 22ra ospatu ziren eta denetarik egon zen. Ganadu feria egiteko herriko gain batean karpa erraldoiak jarri ziren, zerbitzu guztiak eskaintzen zituen parke tematiko moduko bat. *Billaldi* edo lehiaketa horrek gero eta sona handiagoa zuen herrialdean, arrazaren arabera sariak, nekazal tresnari buruzkoak, basogintzarekin zerikusia zutenak... Asko zegoen jokoan. Bigarak zekorrak, oiloak, antzarrak edota “bertako arraza garbiya”, ezta, sagardoa, mantekila, gazta, intxaurrak, albertxikuak eta lekari sasoikoak... Gernikako urria Hernaniko irail bihurtuta. Dena den, frogar bat dago feria hori, ezkutuan bada ere, asmo politikoetarako baliatzen zutela egiaztatzen. Honela zioen euskaraz, xuxen uler zedin, Aldundiak kaleratutako programak: “Beiganadu, zaldi eta asto, dirala arrak edo emiak, sariya irabazten dutenak billaldi onetan, biarko dituzte beren jabiak iruki probintzi onetan arrazak obetzeko, billalldiyaren ondorengo amabi illabetietan”. Asmo politikoa, koanto.

Ekitaldi erlijiosoak, hitzaldi ofizialak eta banketeak ere izan ziren herriko plaza nahiz kaleetan, bai eta dantzariak eta dantzaldiak, su artifizialak eta “sumendiak”, Txirrita nahiz Pello Errotaren zipla eta takoak, Eltzekondo borrokalariaren gihar erakustaldiak, konpartsa eta aurrekua, makildantzari irrintzilari blankolari, pultsolari eta zulladunak... Bestalde, kultura “jasoago” baterako tarteak ere izan ziren Hernaniko 1909ko euskal jaietan, emanaldi literario-musikalekin eta lore-jokoe-kin. Lore-jokoak Erromantizismoak XIX. mendean berreskuratutako lehiaketak ziren. Katalunian Erdi Arotik zetorren tradizioa zen eta Hego Euskal Herrian foruen defentsak bultzatu zuen holako ekitaldiak

Euskal jaietan oso gogoan izan zuten aita Agustin Kardaberaz. Jesuitaren gorpuzkinak urtebete lehenago “aurkitu” zituzten Italiako deserrian

Aurtengo egitaraua

Hilaren 19an, 10:00etan abiatuko da jaia, nekezarritza eta abeltzaintza azokarekin, Ezkiaga pasealekuan. Horretaz gain, artisau feria, herri kirolak eta kalez kaleko kanta saioa izango dira goizean. Txakoliaz dastatzeko aukera ere eskainiko dute antolatzaileek. Arratsaldean berriz, kalejiran parte hartu ahal izango da, Ttarla dantza taldearekin, eta Erdizka Lauetan taldeak dantza saioa eskainiko du. Gaueko 22:30ean, bertsolariak arituko dira Atsegindegi Plazan.

Hilaren 20an, Txistulari Bandaren dianak esnatuko du herria. Sagarraren eguna, trikitixa txapelketa, Urretxa Mikologia Elkartearen erakusketa, pilota partiduak, bazkari herrikoia, Hernaniko Musika Bandaren eta Txistulari Bandaren dantzaldia eta zezen suzkoa izango dira egitarauko ekitaldi nagusiak.

antolatzaera. Bertan musika, bertso, literatura lantzen zen batik bat. Hernanin arrakasta itzela izan zuten Gregorio Mujikak, Ramon Inzagarayk Jose Elizondok, Inazio Urangak edota Bernardo Gabiolak, beste askoren artean. Alfredo Laffitte donostiar kazetaria zen lore-jokoen antolatzaile eta bere sarrera hitzaldian oso gogoan izan zuen, batez ere, aita Agustin Kardaberaz Hernaniko semea. Izan ere, euskararen berri ona eman zigun jesuitaren gorpuzkinak urtebete lehenago “aurkitu” eta ekarri zituzten Italiako erbestetik eta oraindik presente zuten hori euskaltzaleek.

Jai arrakastatsuak izan zirela dudarik ez da, *Euskal-Erria* aldizkarian eta gainerako prentsan eman zioten kobertura ikustea besterik ez dago, *Baserritarra*-k honela zioen: “Ez daukagu emen tokirik bere gañesan behar degun guziya esateko eta bere berri ongi emateko. Onek artu arazi digu asmua egun guchi barru ateratzeko *Baserritarra*ren ateraldi oso bat gehiago, Hernaniko billalldiyaren berri emanaz”. Tamalez, ez zen edizio berezirik atera, “gure borondatek kanpo dauden arrazoiengatik”, azaldu zuten egunkariko arduradunek. ■

Babeslea: Hernaniko Udala



Gero eta aukera gehiago dago Hernanin euskaraz bizitzeko. Egin aukera eta sortu berriak.

